

KAPITALISTEN LANGI-
LLE "PRESTUAK"

Bistan da kapitalistek istimatzen dituzten langille "prestua" eta Euzkadi'k behar dituenak arras dirala diferenteak. Zer nahi eztugun jakiteko, beraz, aski da kapitalistek zer nahi duten hitz gutxitan azaltzea.

Langille "prestua" lehenengo ezagugarria hau da: orduai ez begiratzea. Kapitalista guziak amorratuta ibiltzen dira beti puntu huntan: langillea berandu joaten da lanera, goizegi ateratzen da lantegitik, eta abar. Erlojuari begiratu gabe egon beharrean (kapitalistak eztaiki zer ordu dan lantegian dagoenean), langille "prestu" eztana, beti dabil erlojuari so. Nazkatu egiten du kapitalista langillearen ajolakabeke-ri horrek: beti irtetzeko zai, alajainkoa!... Orduaz ahaztutzen da langille "prestua", nagusia bezelaxe. Igandean ere itzuli bat egiten du lantegitik. Eta bakazioak ez ditu sakulan aipatzen. Langille "prestua" lagille porrokatua da. Lantegian lantegiteko bizi da. Lanaz kanpo ez du beste kezkarik.

Eztizkio, bestaldetik, txitxareak nahastutzen ugazabari. Hunek gauza bat egiteko esaten dionean, egin egiten du, eta kitto. Lantegiko beste tresna bat bezelakoa da: esanetara dago, tautik esan gabe. Ez du iniziatibarik batere, eta hunengatik ez du nagusia galerazen bere burutazioekin. Esklabo zintzoa da, eta zozoa.


Langille "prestua" lantegiko etxeetako batean bizi da, eta mesede hunengatik ere oso "obligatua" dago nagusiarekiko. Ditu bi semeek ere fabrikak jarri duen Eskola Profesionalean ikasten dute fabrikako espezialidade bat, fabrikaren lantegiteko. Hunengatik ere eskerrak eman behar beti ugazabari, eta irribarre ez urri.

Langille "prestua" ezta istillutan sartzen. Sindikatoei buruz ezta batere fiatzen (sindikato egiazkoak esan nahi dut, noski). Oporra dagoenean, berak ez du ezer esaten oporraren alde: mesede asko zor dio nagusiari, eta oporrera ateratzea itsuskeri bat egitea da.

Langille "prestua" ezta beste langilleekin ibiltzen, eta are gutxiago beti langillen eskubideez eta kapitalisten kontra ari diran "saltsero horiekin". Horrengatik, langille "prestua" txintxoia dalako eta oporren alde ezer egiten eztuelako, urtearen bukaeran "sobre" bat jasotzen du, "saltsero"entzako ezer eztagoelarik ere.

Langille "prestua" ezta lantegiko diru-inbertsioez okupatzen. Kon-

bakarra • euzkadi da geure aberri bakarra • euzkadi
nación • autogobierno • democracia • sindicatos •
berri bakarra • euzkadi da geure aberri bakarra • eu
ticapitalismo • universidad • euzkera • promoción
re aberri bakarra • euzkadi da geure aberri bakarra
ropiedad social • planificación • Europa • valores
ción de etx • etx'ren agerpena • publicación de etx • etx'ren agerpena • publicación de etx • etx'ren agerpena • p



di da geure a
trabajo • an
zkadi da geu
cultural • p
euzkadi da g
vascos • na
• p

Irugarren Sorta - 22'n Zenbakia IRUÑA Tercera Serie - Número 22

KAPITALISTEN

LANGILLE

"PRESTUAK"

Bistan da kapitalistek istimatzen dituzten langille "prestua" eta Euzkadi'k behar dituenak arras dirala diferenteak. Zer nahi eztugun jakiteko, beraz, aski da kapitalistek zer nahi duten hitz gutxitan azaltzea.

Langille "prestua" lehenengo ezagugarria hau da: orduai ez begiratzea. Kapitalista guziak amorratuta ibiltzen dira beti puntu huntan: langillea berandu joaten da lanera, goizegi ateratzen da lantegitik, eta abar. Erlojuari begiratu gabe egon beharrean (kapitalistak eztaiki zer ordu dan lantegian dagoenean), langille "prestu" eztana, beti dabil erlojuari so. Nazkatu egiten du kapitalista langillearen ajolakabeke-ri horrek: beti irtetzeko zai, alajainkoa!... Orduaz ahaztutzen da langille "prestua", nagusia bezelaxe. Igandean ere itzuli bat egiten du lantegitik. Eta bakazioak ez ditu sakulan aipatzen. Langille "prestua" lagille porrokatua da. Lantegian lantegiteko bizi da. Lanaz kanpo ez du beste kezkarik.

Eztizkio, bestaldetik, txitxareak nahastutzen ugazabari. Hunek gauza bat egiteko esaten dionean, egin egiten du, eta kitto. Lantegiko beste tresna bat bezelakoa da: esanetara dago, tautik esan gabe. Ez du iniziatibarik batere, eta hunengatik ez du nagusia galerazen bere burutazioekin. Esklabo zintzoa da, eta zozoa.

Langille "prestua" lantegiko etxeetako batean bizi da, eta mesede hunengatik ere oso "obligatua" dago nagusiarekiko. Ditu bi semeek ere fabrikak jarri duen Eskola Profesionalean ikasten dute fabrikako espezialidade bat, fabrikaren lantegiteko. Hunengatik ere eskerrak eman behar beti ugazabari, eta irribarre ez urri.

Langille "prestua" ezta istillutan sartzen. Sindikatoei buruz ezta batere fiatzen (sindikato egiazkoak esan nahi dut, noski). Oporra dagoenean, berak ez du ezer esaten oporraren alde: mesede asko zor dio nagusiari, eta oporrera ateratzea itsuskeri bat egitea da.

Langille "prestua" ezta beste langilleekin ibiltzen, eta are gutxiago beti langillen eskubideez eta kapitalisten kontra ari diran "saltsero horiekin". Horrengatik, langille "prestua" txintxoia dalako eta oporren alde ezer egiten eztuelako, urtearen bukaeran "sobre" bat jasotzen du, "saltsero"entzako ezer eztagoelarik ere.

Langille "prestua" ezta lantegiko diru-inbertsioez okupatzen. Konprenitzen du eginkizun hau nagusiari dagokiola, eta langilleek eztakitela eta eztakitela tutik huntaz. Langille "prestuari" bidezkoa zaio diru-kontu guziak ugazabak berak erabakitzea. Langille "prestua" ezta komunista; eta badaki Aita Santuak sozialismoa ere kondenatu duela. Horrengatik diru-kontuak ugazabari dagozkiola uste du.

Langille "prestua" kontrolaren alde dago. Lantegia ongi eramateko, jakin egin behar da, kontrola behar da. Nagusia kontrolatu behar dala uste dute sozialistak bigunenean, baina langille "prestua" uste du langillea kontrolatu behar dala batez ere.

Langille "prestua", bukatzeko, ezta politikan sartzen; hunek ezpaitakar istillu franko baizik.

Horra hor kapitalisten uesteko langille eredu. Horra hor ametsa..

!!!Horra Hor aketiren bat !!!

Tx.

prenitzen du eginkizun hau nagusiari dagokiola, eta langilleek eztakitela eta eztakitela tutik huntaz. Langille "prestuari" bidezkoa zaio diru-kontu guziak ugazabak berak erabakitzea. Langille "prestua" ezta komunista; eta badaki Aita Santuak sozialismoa ere kondenatu duela. Horrengatik diru-kontuak ugazabari dagozkiola uste du.

Langille "prestua" kontrolaren alde dago. Lantegia ongi eramateko, jakin egin behar da, kontrola

behar da. Nagusia kontrolatu behar dala uste dute sozialistak bigunenean, baina langille "prestu"ak uste du langillea kontrolatu behar dala batez ere.

Langille "prestua", bukatzeko, ezta politikan sartzen; hunek ezpaitakar istillu franko baizik.

Horra hor kapitalisten uesteko langille eredu. Horra hor ametsa..
!!!Horra Hor aketiren bat!!!

Tx.